

ANGELUKO IKASLEAK
OSD.GUNEKO ERAKASKERA
1996-97 - IKASURTEA.

HIRUGARREN ERAKASPENA.

ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA
1- Zer guzoz zen Oihanaldeko Thomas?
2- Nor zen? Noren aita? Nungo nagusia?
3- Emaztearen zorbait xelestasun hartaz.

PIARRES

OIHANALDEAN

Behiak deitzirik, eta kaikua sarrixago edanen den esne lodi gizenaz betherik, sukaldean Piarres sartu zeneko, Aita jin zen hura ere, alimaler jatera emanik eta helako athe-leihoak ongi hetsirik. Bethidanik zaukan: hotza partida dutela behiek, jendeek bezenbat bederen, edo gehiago. Gaztenak, pin, pan, paderan tiroka ongi erretzeko artean, haurrak, katixima ahantzirik, hirri-karkaraz zago-denboran, bere bethiko tokian, zizelu-xokoan jarri zen. Eta bi eskua surat, pafa pafa deskantsuan ari zen orai, lurrezko pipa labur bat ahoan, pipa hartarik kurumilka zoan kheari beha, khe hura baitere ikusi gabe, begiak han nonbeit galduak. Sukilaren aintzinean, karraskan errez zoazin aldiz othe adarrak...

Norbeit izaitkotz, gizona zen egiazki Oihanaldeko Thomas. Berrogoi eta hamabortz urthetan han harat bazoan orai, berrogoi urthetan bezen hazkar bethi. Larrua lanean ximaldua segurki, bainan begiak argi, kopeta zabal, eta kopeta haren gibelean, kaskoetan xuxenena. Gut, arras guti sartu zen behin ere bertzeen egitekoetan. Halare, gizon zuhurra egiazki zelakotz, jende asko ethortzen zitzaion Oihanalderat, argi zerbeit haren ganik beharrez. Herriko gizon egina zuten aspaldiko urthetan, eta Paxkal jaun merak adixkide segurragorik ez zuen-nahi bere biltzarretan.

Oihanaldean, gauzak oro haren erranetik zoazin, eta erregerik ez zen Thomasi nausitasun maiteenean joanen zionik. Faraon bere jar-alkiaren gainean bezenbat bazen hura Oihanaldean, lichenago iragan nausiek argi argia higatu zizeluaren gainean. Solas alfer guti un aita maitatu haren ahotik, mehatxu gutiago oraino; hitz bat, keinu bat; aski baitzen hura ororentzat... Eta, berchala hemen erraiteko, nehork ez zuen aita hura Piarresek bezen gora ekartzen bihotzean...

Abbe Barbe (mort - 3/0)

Pour memoire 33. Ni nintzen = j'etais

- Ni (moi) Nintzaizun (a vous) = je vous etais
- Nintzaion (a lui) = je lui etais
- Nintzaizuen (a vous) = je vous etais
- Nintzaion (a eux) = je leur etais

III ADITZ IKASKUNTZA

- 31. Zagozin 32. Zoan.
- 33. Zitzaioun 34. Zion. ik.

31. EGON. Indicatif.

<u>Present</u>		<u>Imparfait</u>	
Ni nago	= je reste	nindagon	= je restais
Hi hago	=	hindagon	=
Zu zande	=	zinauden	=
Hura dago	=	zagon	=
Gu gaude	=	ginauden	=
Zuek zaudzete	=	zinaudetzen	=
Hek daude	= etc	zauden (zagozin)	= etc

32. JOAN. Indicatif

<u>Present</u>		<u>Imparfait</u>	
Ni noa	= je vais	nindoan	= j'allais
Hi hoo	=	hindoan	=
Zu zoatzi	=	zinoatzi	=
Hura doa	=	zoan	=
Gu goatzi	=	ginoatzi	=
Zuek zoazte	=	zinoazten	=
Hek doatzi	= etc	zoatzi	= etc

33. IZAN. Regime indirect Indicatif Imparfait

Hura zen = il etait

Hura (lui) Zitzaitan	= il m'etait
Zitzaizun	= il vous etait
Zitzaioun	= il lui etait
Zitzaizun	= il nous etait
Zitzaiuzen	= il vous etait
Zitzaiuen	= il leur etait